

# DBH\_4\_LATIN\_PROGRAMAZIO\_LABURPENA

Irakaslea | Iñaki Garcia Cia | Maila | 4. DBH | Ikasturtea | 2021-22

## IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN (\*)

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Prezentzialaren Plana](#).

Latina irakasgaiaren xede nagusia da ikasleari latinaren eta haren kulturaren funtsezko alderdien ezagutzaren hastapena ematea, eta, era berean, nabarmentzea zer garrantzi izan duten, hizkuntza erromantzeen eta mendebaldeko kulturaren jatorri eta oinarri diren aldetik. Etapa honetan bilatzen da hizkuntza hau –aberastasuna eta egitura konplexuak ezaugarri dituena– sakonago ikas dadila. Hau ez da bakarrik ariketa intelektual bat; aldi berean oinarri zientifiko sendoa ematen du beste hizkuntza batzuk ikasteko eta horretan pixkanaka hobetzeko. Astean 3 ordu izango dituen ibilbideko derrigorrezko ikasgaia da. Ikasleek lehen aldiz landuko dute ikasgai hau eta hurrengo urteetan latina ikasgaia jarraitzeko oinarriak ezarriko ditu.

## OINARRIZKO GAITASUNAK

## Unitateak

• Matematika eta Zientzia-, teknologiako oinarrizko gaitasuna									8	9
• Ikasten ikasteko gaitasuna	1	2	3	4	5	6	7	8	8	9
• Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna							7	8	8	9
• Gaitasun digitala	1	2	3	4	5	6	7	8	8	9
• Gaitasun sozial eta zibikoa	1	2	3	4	5	6	7	8	8	9
• Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	6	7	8	8	9
• Ekimena eta ekintzaitza	1	2	3	4	5	6	7	8	8	9

## HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

1. Latinaren elementu morfologikoak, sintaktikoak eta lexikoak identifikatu eta erlazionatzea.
2. Latinaren osagai garrantzitsuenak latindar edo latindar eragina duten hizkuntza modernoetan bereiztea.
3. Latinezko testu desberdinak (jatorrizkoak, moldatuak eta itzuliak) aztertzea eta itzultzea.
4. Zibilizazio erromatarraren ekarpen nagusiak identifikatu eta baloratzea.

## EDUKIAK (\*)

Edukiak, Ebaluazio Irizpideak eta Estandarrak Ebaluagarriak Gaiaren Programazio Orokorrean eta BONen adierazita daude. [DBH CURRICULUMA](#). Eranskin 1. 32.-33. orrialdeak

### 1. Multzoa. Latina, hizkuntza erromantzeen jatorria.

Hizkuntzaren inguru geografikoa.

Indoeuroparra.

Espainiak hizkuntzak: hizkuntza erromantzeak eta ez erromantzeak.

Latinaren hizkuntza elementuen iraupena. Norberaren hizkuntzaren abiltzendiren lexema, atzizki eta aurrizki latindarrak identifikatzea.

### 2. Multzoa. Latin hizkuntzaren sistema: oinarrizko elementuak.

Idazkeraren sistema desberdinak: idazkeraren jatorria.

Latinezko alfabetoaren jatorria. Ahoskera.

### 3. Multzoa. Morfologia.

Hitzen eratzailak.

Hitz motak: aldakorrak eta aldaezinak. Deklinabide kontzeptua: deklinabideak. Substantiboak, adjektiboak, izenordainak eta aditzen flexioak.

Aditzak: formapertsonalak, oraindikoinfinitibo

aktiboa eta partizipio burutua.

#### 4. Multzoa. Sintaxia.

Latineko kasuak eta haien funtzioak. Komunzadura.  
Perpausaren osagaiak.  
Perpausbakuna: perpausatributoetapredika- tiboak.  
Perpaus juntatuak.  
Infinitibo hitzartuko eta ez hitzartuko perpausak.  
Partizipio burutu hitzartua.

#### 5. Multzoa. Erroma: historia, kultura eta zibilizazioa.

Erromako historiaren aroak.  
Erromako antolaketa politiko eta soziala. Zuzenbide erromatarra.  
Eguneroko bizitza. Erromatar kultura. Mitologia eta erlijioa.

#### 6. Multzoa. Testuak.

Itzulpen tekniken eta erretrobertsioaren hasta- penak.  
Analisi morfologiko eta sintaktikoa. Testuizulien ulermenezko irakurketa.

#### 7. Multzoa. Lexikoa.

Latineko oinarriko hiztegiak: lexikogardena, maiz- tasunetagarri zehazieneko hitzak eta aurizkieta atzizki nagusiak.  
Ahozko eta idatzizko hizkuntzaraigarotakolati- nismoak.  
Latinetik hizkuntza erromantze eta arandakoebo- luzio fonetikoaren, morfologikoaren eta semantikoaren oinarriko nozioak.  
Ondare-hitzak eta kultismoak.

\* *Edukien antolaketa ez da finkoa, beharren arabera kurtsoan zehar unitateen ordena aldatu daiteke*

### UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	32	Orduak	30	Orduak	30
12	1. unitatea	10	4 unitatea	10	7. unitatea
10	2. unitatea	10	5. unitatea	10	8. unitatea
10	3. unitatea	10	6. unitatea	10	9. unitatea

### METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

**Testuliburua:** Ez dago, fotokopien bitartez landuko ditugu atal ezberdinak

**Irakurketa liburua:** *Kasu eman Idusei* Lola Gandara ( *Denonartean* argitaletxea)

**Beste materialak:** Pelikulak eta bideoak, informazio baliabideak: internet, aldizkariak, etab.

Lan koaderno pertsonala.

Metodologia: Ikasturte honetan, ahal den neurrian klase- dinamika ikaskuntza kooperatiboarekin antolatuko da

Chromebookak erabiliko dira zenbat lan/ proiektuak egiteko

**Covid-19a dela eta egoera ez-presentzialera joan behar badugu, metodologia online izango da: clasroom, meet, baliabideak erabiliko direlarik.**

### EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

#### EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA ESTANDAR EBALUAGARRIAK

- Izen, aditz eta izenorde flexioa ondo deklinatzea / jokatzea.
- Testu errezetan oinarriko sintaxi eta morfologia elementuak identifikatzea.
- Ahalik eta zehaztasun handienez narrazio esaldi zein testu laburren analisia eta itzulpena egitea.
- Erromatar historia eta gizartearen alderdi garrantzitsuenak jakitea.

#### KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

Ebaluazio bakoitzean gutxienez azterketa eta lan proiektu bat egongo da.

- **Azterketa edota frogak:** eta proiektuen emaitzak % 50
- **Talde Lana :** % 20
- **Lan indibiduala:** %10
- **Jarrera** (parte-hartzea, arreta, ikaskide, irakasleekiko errespetua-puntualitate barne-, isiltasuna) %10
- **Euskararen erabilpena** bai lanetan bai mintzamenetan : % 10
- Ebaluazio bakoitzean batezbesteko nota 5 baino txikiagoa izanez gero berreskurapen frogan berreskuratzeko aukera edukiko dute ikasleek ebaluazio astea eta bi aste geroago, ebaluazioko azterketa global baten bitartez

- Koadernoko ariketak eta lanak, taldeka edo bakarkakoak, eginak eta aurkeztuak izatea derrigorrezkoa da gainditzeko.

### **EBALUAKETA BAKOITZEKO BOROBILKETA**

Hurrengo borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

### **IKASGAIAREN NOTA FINALA**

Amaierako nota kalkulatzeko, ebaluaketa bakoitzeko borobildu gabeko notari hurrengo ehunekoak aplikatuko dira, azldutako eskalaren arabera. Gero nota hori borobilduko da:

**Azken nota kalkulatzeko ebaluaketak proportzionalki hartuko dira kontutan, azkenak balio handiagoa izanik.**

**1. ebaluaketa: % 30%    2. ebaluaketa: % 30    3. ebaluaketa: % 40**

### **ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK**

Azterketa guztiek atal berdinak izango dituzte: Deklinatzeko ariketak eta aditzen jokabidearen ariketak, sintaxi analisia eta itzulpena, erretrobertsio ariketak, etimologia eta erromatar zibilizazio zein kulturari buruzko galderak. **Zuzentzerako orduan, azterketetan, akatsek, bai morfologian bai sintaxian nola itzulpenetan , puntuazioa kenduko dute. Itzulpen ariketetan akats bakoitzeko 0,1 gutxiago. Proiektuetan, errubrikaren bidez egingo da eta horren eskalaren arabera**  
**Gutxieneoak**

**Gutxieneoak** Estandar ebaluagarriekin kointziditzen dira, ikasleak neurri egokian lortu behar dituenak.

### **ERREKUPERAZIO SISTEMA**

Ebaluazio bakoitzean bataz besteko nota 5 baino txikiagoa izanez gero berreskurapen frogan berreskuratzeko aukera edukiko dute ikasleek ebaluazio astea eta bi aste geroago, froga baten bitartez, ikasleari adaptatua, bai azterketa batean edo lan monografikoko edo irakurketa eta iruzkin bateko forman.

Kurtsoko berreskurapenak ekainean ohikoan eta ezohikoan izango dira. Nahikotasun azterketa hauetan materia osoarekin joango dira ikasleak, froga global bat eginez.

2021eko iraila